

BI MILA ETA HAMABOSTEKO URTARRILAREN HOGEITA BEDERATZIAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2015eko urtarrilaren hogeita bederatzian, 20:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M^a Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri
Aitziber Ibinarriaga Delgado
Jose Jesus Iturbe Oñartetxebarria
Beñat Barainka Enzunza
Eduardo Saez Rementeria
Lorenzo Ortiz Guerra

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

I.- BI MILA ETA HAMALAUKO ABENDUAREN HAMASEIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2014ko abenduaren hamaseiko bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

Milagros Bilbao Ojinagak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Urtalde 20 auzoko etxola konpontzeko baimena emon zaio Milagros Bilbao Ojinagari.

Leire Blazquez Aguadok aurkeztutako bermea itzultzeko eskaera.

Leire Blazquez Aguadori Libao 5 auzoko etxebizitzan konpontze lanak egiteko jarritako bermea itzultzea erabaki da.

Bingen Elgezabal Legarretak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Agirre 17 auzoan dagoen bidea lekuz aldatzeko baimena emon zaio Bingen Elgezabal Legarretari.

2015eko ekaineko ordainsariaren aurrerakina.

2015eko ekaineko ordainsariaren aurrerarikina onartu da.

Faktura elektronikoen Sarrera puntu nagusia sortzea.

Arrietako Udaleko Faktura elektronikoen Sarrera puntu nagusia sortu da.

María Luisa Unibaso Etxebarriak aurkeztutako bermea itzultzeko eskaera.

Maria Luisa Unibaso Etxebarriari Mendiritza baserriaren estalkia konpontzeko jarritako bermea itzultzea erabaki da.

Felipe Andikoetxea Uriartek aurkeztutako bermea itzultzeko eskaera.

Olatxu 14 auzoko etxebizitzaren teiltua konpontzeko jarritako bermea itzultzea erabaki da.

III.- 2015EKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ERROLDAREN ONARPENA.

2015eko Trakzio Mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren zenbatekoa hogeita zortzi mila zortzirehun eta hirurogeita bat euro eta hirurogeita hamabost zentimokoa (28.861,75) da. Udalbatzak, aho batez onartzea erabaki du eta dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzea. Ordaintzeko borondatezko epea, 2015eko maiatzaren batetik uztailaren batera bitartean izango da.

IV.- DANIEL SALVADOR OTADUY ARKITEKTUAREN KONTRATUAREN PROPOSAMENA.

Udaleko aholkularitza lanak egiten dituen Daniel Salvador Otaduy Udal Arkitektuaren kontratua amaitu egin dela ikusita, Udalbatzak, aho batez, kontratua urte betez luzatzea erabaki du 2015ko otsailaren batetik 2016ko urtarrilaren hogeita hamaikara bitartean, barikuetan, goizeko 10:00etatik 14:00etara bitartean. COAVN Arkitektuen elkargoaren hobaritza profesionalak 2015 ekitaldirako 70 €/orduko dira..

V.-SUSPERGINTZA ELKARTEAREN KONTRATUAREN BERRIZTAPENA LUDOTEKAREN KUDEAKETA EGITEKO.

Alkate jaunak 2014ko urtarrilaren 31n Suspergintza Elkartearekin ludotekaren gestioa egiteko sinatutako kontratua amaitu egin dela adierazi du. Udalbatzak, aho batez, kontratua berriztatzea erabaki du 2015eko otsailaren batetik 2016ko urtarrilaren 31ra bitartean, arrastiko 5etatik 7etara, astelehenetik barikura. Aurrekontua bederatzi mila zazpirehun eta hogeita hemeretzi euro eta bederatzi zentimokoa da (9.739,09), kontratuaren gainontzeko baldintzak berdin jarraituz. Kontratua sinatzeko Alkate jaunari ahalmena eman zaio.

VI- EUSKARA TEKNIKARIAREN ZERBITZUEN KONTRATAZIOA.

Hizkuntza politikaren garapen lanak, euskera zabaltzea eta kultur ekintzak aurrera eramateko, Labayru Ikastegiagaz sinatutako kontratua ikusita, euskera teknikari lanak egiteko asmoz, 2015eko martxoaren batetik 2015eko otsailaren hogeita zortzira bitartean, asteen behin, Alkate Jaunak Gamiz-Fikako, Fruizko eta Arrietako Udalen artean urteko kontratua egiteko kudeaketak egiten ari direla adierazi du. Udalbatza, jakitun geratu da.

VII.- AHO BATEZ ONARTUTAKO FAKTURAK

€

- Landaburu, S. L. Eraikuntzak, Udaletxean eta frontoian egindako pintaden garbiketa,.....	598,95
- Landaburu, S. L. Eraikuntzak, Udal bulegoan leiho berriak jartzea,.....	2.888,84
-Basalan, espezie inbaditzaileak kentzea,.....	1.584,00
-Magunacelaya, S. L., Libaoko plazarako lauzak,.....	604,03
-Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, etxerako laguntzak eta bestelakoak, 4. hiru hilekoa,.....	2.283,59

VIII.- NORBERAK LEKARKEENA.

Beñat Barainka Enzunzaren eskaera.

Hauteskundeetan ez ezik, era iraunkorren Arrietako auzoetan panel informatiboak jartzeko udal bulegoan aurkeztutako eskaerari buruz galdetu dio Beñat Barainkak Alkate Jaunari.

Alkate Jaunak, hasiera batean, kartelak udal guztian jartzearen aldekoa ez dela adierazi du. Hala ere, eskaera arreta handiagoz aztertze asmoz, batzarra egingo dutela adierazi du.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura bederatzietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko